

- **Zer berri:** Elurrak eragindako kalteak
- **Entzutekuak:** Kiroldegiko kirol jardueren arduradunari elkarrizketa

soraluzeko
hamabostekaria **213.** alea
2010eko urtarrilaren 15ean

pil-pilean



Soraluzeko Caritas
“Instituzioen laguntzarik
ez daukenak datoz guregana”

GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua



Oier Oregi Unamuno
Santa Ana 7
Tel. 943750022



Lepoko minak
Erreuma
Erreabilitazioa
Kirol osteko errekupeazioa
Tendinitisak
Zaintiratuak

Ordutegia:
8:00etatik 21:00etara (oin ez dabe ixten)



!!!. SAN BLAS OPILEN LEHIAKETA!

EGUNA: OTSAILAK 3, EQUAZTENA

ORDUA: EQUERDIKO 13:00ETAN, PLAZA BARRIXAN

IZENA EMATEKO: UDALETXERAJO EDO 943 75 30 43 TELEFONORA DEITU

ANIMATU ETA PARTE HARTU!

ANTOLATZAILEA:



SORLUZEKO
UDALA



MARKEL ARIZAGA



AITOR MADRID


NORENA ETA NORENTZAT DA JAKINTZA?

Pasa dan ostiralian, urte barrixari ongi etorria emotiaz gain, euskarazko Wikipediak 50.000 artikulua eukitzera iritsi zala jakin neban. Marka hau abenduan 30ian lortu zan eta dudarik bare zenbaki honek gora egingo dau etenbare.

Wikipedia, zuk ondo dakizunez Aitor, edozein pertsonagandik jakintza jaso ahal daben entziklopedia bat da. Herrixak egindako entziklopedia dala esan leike. Baina gaur ez dot Wikipedian inguruan zurekin berba egin nahi, baizik eta proiektu honek emoten doskun gauza garrantzitsuenaz: Jakintza.

Zeinena da Jakintza? Eta batez be, zeinentzako? Wikipedia bezelako tresnek egoera idealera eruaten gaittuela pensatzen dot, Jakintza inorena ez, baina danontzako dan egoera hortara. Oin dala zenbait urte ez dot uste hau esan ahal zanik, Jakintza iturririk beti berdinarik baitziran, eta gainera, iturri hauek euren modura “moldatzen” zeben Jakintza hori, bakoitzak beran interesak defendatzeko.

Gaur egun, berriz, Jakintza iturririk askoz be heterogeneoak dira, egixak eta gizurak askoz errezago ikusten dira eta manipulazio lanak jada ez dira hain errezak.

Esaten dabe munduko gose arazuak desageratatzeko tresnarik onena ez dala janarixa, baizik eta Jakintza. Ez al dozu pensatzen Wikipedia eta antzerakuak etorkizunian pertsona askok egunero ogixa eukitzeko lehen pauso bat izan ahal dirala? 

“

Wikipedia herrixak egindako entziklopedia dala esan geinke

Markel Arizaga

Jakinduria konpartitu geinke wikipedia erabilitta

Aitor Madrid

”

Kaixo Markel, eta ezer baino lehen urte berri on danoi!


Gaur egun eta baita iraganian be, Jakintza izan daben herrixek aurrera egin dabe eta ez jakinak izan diranak atzian gelditu dira edo desagertu. Adibidiak asko dira, Grezia eta

Erroma kasu. Azken honek makinabatalorretan aurrera egin zeban greziatarren Jakinduria iturririk edan zabalako. Gizakixakin beste horrenbeste gertatzen da. Gosetia ezabatzeko ezinbesteko neurrixa da beraz Jakinduria. Bihar gorrixa daguanari lelengo gosia kentzeko arrainak emon bihar jakoz,

ados, baina batez be arrantzan irakatsi bihar jako. Berriz be gosia pasa ez daixan.

Gizadiak historia osuan ez moduan, Jakintzara heltzeko inoiz ezagutu ez daben erraztasunak dattu. Bizi garan mundu zati honetan bai behintzat. Eskolak eta unibertsitatiak zabalik dare eta komunikabidiak esku-eskura. Baina orainguan guk geuk idatzi eta komentatu geinkez egunero ikusten dittugunak, blogen bitartez, gure Jakinduria konpartitu geinke wikipedia erabilitta.

Oker egon geinke edo ez, baina beste pertsona batzuekin eztabaidatu geinke eta bai gu eta baita beraiek iritzia emon be.

Baliatu deigun egoera hau gauzak aldatzeko. Tresna berrixak dittugu esku-eskura. Horretarako espirtu kritikodun eta jakiteko gose diran pertsonak bihar dittugu, bizitzen garen ezagutzan iraultza honek guztiok aberas gaitzan. 

Goguan hartzeko

“Urik barik errotarik ez dabil”

Euskal atsotitza



GUTUNAK

BHI-ko ikasketa bidaiaren aldeko Gabonetako Loteria

Gutun honen bidez adierazi nahi dugu, BHI-ko ikasketa bidaiaren aldeko Gabonetako Loteriako 12 774 zenbakia saritua izan dela. Ordainketa aurrezki kutxen bitartez egiteko asmoa baguen ere, entitate hauek adierazi digute hori egitea ez dela posible. Gauzak horrela, ikasleen gurasook ordaintzea erabaki dugu eta horretarako Gaztetxokoan (*Gila tabernaren ondoan*) egiteko baimena eman digu udalak.

Etxaburueta eta plaza zaharreko urbanizazio lanak

A benduaren 28an edukitako ez ohiko osoko bilkuran, Etxaburueta eta Plaza Zaharreko urbanizazio lanak egitea adostu genuen aho batez udaletxeko alderdi politiko guztiok. Helburua urbanizazio lanei otsailean hasiera ematea izango litzateke. Urbanizazio lan hauek 524.000 €ko kostua izango dutelarik. Lan hauek amaitu ondoren IZARTU II egitasmoari amaiera emango litzaioke, horrela herriko alde zaharra urbanizaturik geldituko litzateke etorkizun batean oinezkoentzako gune bihurtuz. IZARTU II egitasmoa 2004ko maiatzaren 17an onartu zen. Ez ordea ezker abertzalearen aldeko bozkarekin, aurka bozkatu baitzuen.

Bost urte igaro ondoren, ezker abertzaleak udal gobernuko kide den hontan bi proiektu hauek aurkeztu zituen eta beraien aldeko bozka eman zuen. Benetan gauza kurioa, lehen aurka bozkatu eta orain beraiek dira proiektu hauek aurkezten dituz-

Maisuen etxe okupatuetako bizilagunen izenean

Gutun honen bidez udaletxean gure etxebizitzaren gainean dauden egitasmoen gaineko iritzia plazaratu nahi dugu. Beraien asmoak, egun gobernu zentralak eskaintzen duen diru laguntza bat eskatzea da, etxe batzuetan, berauen artean gu bizi garen 3 etxebizitzetan, eraberritze lanak egiteko eta gerora, etxebizitza hauek alokairu sozialerako izateko asmoz. Egokitze lanak 2011. urtea baino lehen burutu beharko lirateke. Baina egia esan, laguntza eskatzeko epea otsailaren 4an amaitzen da eta beraiek ez dute etxebizitza egitasmoa zehaztuta ere.

Han izango gara, hilaren 14an eta 21ean, 10:00etatik 12:00etara; Urtarrilaren 15etik aurrera 18:00etatik 20:00etara, barixakuro, martxoaren 19ra arte.

BHI-KO IKASLE ETA GURASOEN BATZORDEA

tenak. Gure taldeak IZARTU II egitasmoa onartu, bultzatu eta gobernuan egon denean bertan zehazten ziren proiektuak burutu ditu (*Erregetxe-Olea Sahiesbide berria, Zeletako Zubia, Arraikuako Urbanizazioa, Arrizabaletako Parkea, Ezozi etorbideko espaloia, Arraikuako urbanizazioa, Kalebarren eta Santa Ana kaleen urbanizazioa, zubi nagusiko zahar berritze lanak*) orain oposizioan gauden hontan ere proiektu hauen alde egin dugu. Ez ordea ezker abertzaleak bezala lehen gauza bat esan eta orain kontrakoa eginez. Bi urte luze igaro diren honetan, jadanik ez gaitu harritzen beraien jarrerak. Lerro hauen bitartez Soraluzetarrei jakinarazi nahi izan diegu zein izan den Ezker Abertzalearen jarrera IZARTU II egitasmoari dagokionean.

SORALUZETAKO EAJ/ PNV UDAL TALDEA

Guk, urteak hutsik zeramatzen etxebizitza batzuk konpondu eta bizitza eman genien. Jada badute erabilera sozial bat, beste era batera gu bezalako jendeak ez bailuke etxebizitza bat izaterik eta arrazoi hauei nahikoa deritzogu bertan jarraitzeko. Ez gara irtengo, ateratzen ez bagaituzte.

MAISUEN ETXE OKUPATUETAKO BIZILAGUNAK

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

 pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** Arianne Unamuno, Egoitz Unamuno, Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZETAKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik

Karmele Ortueta

Bizitzako itullan II

Berrogeita hamar urte badira Besaldi hau entzun nebala: “*Andrak agintzen daben etxia, eta ahuntzak agintzen daben minteixa...*” du-darik bare gizonezko baten ahotik urtendakua izango zan.

Mende erdi pasa da eta bittartian, bateko “*Emakunde*” (*instituto para la mujer*) sortu zan; eta orain, “*Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lehenengo plana*” gure herrixan aurkeztu da. Oso ondo, datozela plan danak! Ongi etorrixak dira nere aldetik. Baina berdintasun marra hori, oso urrin ikusten dot nik. Planak plan, eguneroko ogixa moduan gertatzen dira emakumien kontrako modu danetako jazarpenak, eta hori ikusteko ez daukagu Afganistango Kabulera juan biharrik. Geu bizi garrantzokian, geuretzeko teilatupian aurkittuko dittugu zenbait gizaseme, andreenganako dauken eraman ezina izugarria daukena. Lotsarik bape! Zela izango dabe lotsia, lotsaren aurrekua be falta dabe eta! Badirudi XXI. gizaldixan ez, harrixan garaixan bizi garala! Nik uste dot aurreneko plana etxetik hasi bihar dala. Ikastolan, ikastetxietan gure seme-alabak heziko dirala ustetan bagare guriak egin dau! Ikastolak, ikastetxiak, erakusteko, irakasteko dira, eta gurasuak, zertarako diran gurasuak? Askotan egitten ez dana egittek, hezitzeko. Sermoiak eta egurra emateko gotzain berrixa be badatorkigu eta... isildu nadin!

Xabier Muriel, BPXport enpresako kidea**Aurkeztu zuen burua herri-ttarrei...**

BPXport Kirol Zerbitzuak S.L Donostian sortu zan oin dala lau urte. Gaur egun enpresan bi kide gara, Beñat Barrio eta bixok eta enpresako instalakuntza guztien arduraduna Onintza Arregi da. Beñat eta bixok, Kirol Zientzietan lizentziadunak gara eta masterra Madrilen egin genduan. Sorluzen, ni izango naiz enpresako arduraduna. Zaldibitarra naiz, baina Iruñan bizi naiz. Goi errendimenduan eta enpresan dihardut lanian.

Nundik dator BPXport izena?


Izena asmatu ezinda ibili ginan eta azkenian gure inisialak batu (*Beñat, Patxi eta Xabier*) eta “*BPX*” sortu zan; “*sport*” gehituta BPXport izena asmatu genduan.

Zela doiaz lehenengo egunak?

Ilusiñoz beteta, baina gogorak. Oin arte erabat ahuldu ta zeguan Sorluzeko kirol eskaintzia. Udalak aldaketa baten aldeko apustua egin dau eta gu horretarako erremintta gara. Eskaintza eta kiroldegiko antolakuntza guztia Udaletik etorriko da.

Zuen ardurak zeintzuk dira?

Gure ardura Udalak eskaintzako kirol eskaintzan begiraliak ipintzia da, igerileku zein lehorreko jardueretako. Gure bihar nagusixa begirale honek antolatu eta Udalari eskaintza egoki eta apropos bat gomendatzia litzake.

**Zeintzuk izango dira zuon asmo barrixak?**

Asmo nagusixetako bat herri-tarrak gustora ikusi eta kirol eskaintza ugaritzia izango da.

Kirolari begira, zer falta da Sorluzen?

Ondiok ez dogu Sorluzen bihar dan moduan eza-gutzen, baina herrixan ikusi dogunan arabera, eskaintza uniforme eta finko baten biharra zeguan. Instalazi-nuak hobetu dira, baina gure ustez hobetzen jarraitu biharko dabe, biharra badauke eta! Sorluzen nahiko herri haundixa da eta herritarrak ez leukie inguruko herrixetako kiroldegixetara juateko premiarik euki bihar.

Sorluzetarrak kirolzaliak dira?

Euskal Herrixan ohituraz hola-lakuak gara eta ikusi dogunez bailara honetan ondiok gehixago! Herrixan kirol eskaintza ona dagan bittartian, ez da ez, kirolari faltarik izango! 🏊

“*Herrixan kirol eskaintza ona dagan bittartian, ez da ez, kirolari faltarik izango!*”

**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**Hotzian eta beruan
jotako tornilluak**Errekalde 21
20590 SORLUZE**T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61**Kontulan
Aholkularitza S.L.**Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
AseguruakSanta Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 8220590 Sorluzen
GIPUZKOA

Herria zazpi orduz argindarrik gabe elurragatik



Iturria: Patxi Aizpuru

Ezoziko auzotarrak auzoan elurra ez kentzeagatik kexatu dira.

Hilaren 8an hasitako elurteak hainbat kalte eragin zituen herrian. Urtarrilaren 9an, eguerdiko 13:00a inguruan, herria argindarrik gabe geratu zen. Sologoeneko zentral elketrikoaren gainean pinu bat erori eta herri osoko argindarra bat-batean joan zen. Herri erdiak arratsaldeko 16:00ak inguruan jaso zuen berriz argindarra eta beste erdiak, iluntzeko 20:00etan.

Izotzak arazoak ekarri zituen

Behin elurtea pasata eta hotzaren eraginez, herriko kale eta errepideak izoztu egin ziren. Udaltzaingoaren esanetan, gutxienez, hiru izan ziren izotzaren eraginez lurrera jausi eta zauritu ziren herritarrak. Hauetako bik ospitalera jo behar izan zuten. Udaltzainburuak gogoratu nahi du elurra dagoen bitartean herriko erdialdea ez dela autoentzat itxiko. ☞

Kirol teknikari postua erabaki da

Maria Gallastegi Aizpuruak lortu du udaleko Kirol Teknikari postua. Erabaki zenetik hamar egun pasata lortu du postua funtzionario izaeraz 12 hilabeteko praktikaldian. Epe hori gaingiduta lanpostua jabetzan hartuko du. Bere zeregina administrazioaren kudeaketa izango da, besteak beste, kiroldegiko harrera, bazkideen kuotak, instalazioen mantenua eta garbiketa.

Udaletxean idazkari berria



Itziar Sagastagoia Zabala da udaleko idazkari berria. Asteon hasi da udaletxean idazkari lanetan bitarteko lan-kontratuarekin.

Gaztetxokoa zapatuan irekiko da

Berritze lanak zirela eta Gabonetan itxita egon ondoren, Kukumixo Aisialdi Taldeak bideratzen duen Gaztetxokoa zapatuan irekiko da berriro. Lehengo ordutegia mantenduko dute: zapatu eta domeketan egongo da zabalik, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara bitartean.

Kukumixon parte hartzeko aukera zabalik

Kukumixo Aisialdi Taldeak begira-leak behar ditu, herriko haur eta gazteen aisia betetzeko prestatuko diren ekintzetan parte hartzeko. Interesa dutenek, **943 75 13 04** telefonora deitu beharko dute edo **koordinazioa@pilpilean.com**-era e-posta bat bidali.

Etorne Aranburu Trikitixa Eguneko logo lehiaketan irabazle

Gazte ordiziar honek irabazi du Musika Eskolak antolatutako 2010. urteko Trikitixa Eguneko logo lehiaketa. Guztira bost parte hartzaile lehiatu dira logotipo lehiaketan eta bera izan da 150 euroko saria jaso duena. Trikitixa Eguna apirilaren 17an ospatuko da, Soraluzean.



IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Enkarguz eskatutako janaria ere prestatzen dugu

Kalebarren 29
Soraluze
T. 943 75 12 49

CERTICAR
CARNE DE VINOYO CERTIFICADO

SEGURTASUNA

GILTZAK, S.L.
SARRAILAGINTZA

• Era guztietako sarraila eta segurtasun kutxen **salmenta** eta **mantenua**
• Segurtasun eta iheserako **instalakuntzak**
• Sarrailen **egokipenak**
• Era guztietako giltzen **kopiak**
• Trabatutako atearak **askatzen** ditugu

8.00etatik 24.00ak larrialdiko zerbitzuak 943 70 13 91

Arragueta 3
20600 EIBAR
GIPUZKOA
T. 943 70 13 91
F. 943 20 86 99
giltzak@giltzak.com
www.giltzak.com

K21

Hainbat lapurreta gertatu dira herrian

Soraluzeko Udaltzaingoak aipatu duenez, Gabonetako oporretan eta urtarrileko lehenengo egunetan hainbat lapurreta egin dituzte herrian. Larriena, Plaza Barriko frutategian gertatu da. Gauez zela, norbait dendara sartu eta dirua eta materiala lapurtu zituen bertatik. Herritarren hainbat auto ere erasotu dituzte, kristala apurtuz eta barruko materiala lapurtuz. Diru-zorroak lapurtzen dihardutela eta tentuz ibiltzeko gomendioa ere egin du Udaltzaingoak.

Soraluzen ere "Elkartasun olatua" sortu nahi dute

Soraluzeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak adierazi duenez, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak abiatu duen aldarrikapen eta ekimenekin bat egin dute Lurdes Txurruka eta Peio Etxeberría soraluzetarrek. Datozen hilabeteotan, komunikazio grebak, itxialdiak eta gose greba moduko ekimenak egingo dituzte "euren eskubideak errespetatuak izan daitezzen eta Euskal Herriratu ditzaten". Herrian ere, presoekin elkartasunean hainbat ekimen bideratuko dira, Soraluzen ere "Elkartasun olatua" eratzeko. Urtarrilaren 25etik 31ra bitartean egingo duten gose greba izango da lehenengo ekimena.

KZgunean ONA txartela eskatu daiteke

Osasun Nortasun Agiria (ONA), osasun txartel elektronikoa berria da. Eskuratu nahi duenak, Soraluzeko KZgunera jo behar du. Txartel honekin, besteak beste, osasun arloko tramiteak eta gizarte segurantzako tramiteak egin daitezke, baita gida baimeneko puntuak kontsultatu daitezke.

KZguneak hilaren 21ean eta 28an irekiko ditu ateak, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara bitartean.

Osoko Bilkuran trafikoaren noranzkoa aldatzeko mozioa onartu egin da



Aldeko sei botu (EAJ, PSE-EE eta PP) eta aurkako bost bosturekin (Udal Gobernu taldea), onartu egin zen mozioa. EAJ-k esan zuen sahiesbidea aparkaleku bihurtu izanak "herriko arazo bakar bat ere ez duela konpontzen". PSE-EE-k ere, hari beretik esan zuen, "sahiesbidea hipotekatzeari ez dela irtenbidea". Alkateak erantzun zuen, norabide aldaketak ez direla "neurri isolatuak eta Etxaburueta eta Plaza Zaharreko lanak amaitutakoan herri erdia oinezko bihurtzeko asmoa bete" egingo dela.

Alkatearena da azken erabakia

Mozioa onartu den arren, arlo honen eskumena alkatearena da eta berea azken hitza. Hala ere, dei egin zien herritarrei Udalera joan eta euren desadostasunaren arrazoiak azaltzeko. Lehengo norabidea berrezartzea eskatzeko 479 sinadura aurkeztu zituzten eguaztenean.

Soldaten jaitsiera bere horretan

Gobernu Taldeak kargu publikoen soldaten %10eko jaitsiera

proposatu zuen. EAJ-k "harri-duraz" hartu zuen proposamena, bere hitzetan, bere taldeak aurrez proposamen horren azalpenik jaso ez zuelako eta gehitu zuten, iaz, soldaten izozketa eskatzen zuen mozioa aurkeztu eta onartu egin zela eta postura berdinarekin jarraitzen dutela. PSE-EE-ren ustez, urte hau soldaten izozketa aplikatzen den laugarren urtea da eta dirua aurrezteko beste bide batzuk daude, adibidez, "fartzadak garbitzen xahutzen diren 24.000 euroak". PP-ko zinegotzi Maria Garmendiak ere, jaitsiera hori aplikatzeko arrazoirik ez zegoela esan zuen. Alkateak EAJ-ri erantzun zion, bere garaian soldadak izozteko aurkeztutako proposamena pleno baten bidez jakin zuela: "Ekainean soldadak sei hilabeterako izozteko erabakia hartu eta gero, berriz dakarkigu proposamena". Bukatzeko, Udaleko zinegotzi hautetsiek mozioa aurkeztu zuten Aramaioko Alkatearen kontrako prozedura judizialen gainean. Gainean eta onartu egin zen

Eguazteneko saioko irudia.

Pil-pilean Euskara Elkartearen

MAKETATZAILE/ DISEINATZAILEA BEHAR DA

Eskatzen dugu: **In desing, photoshop eta freehand programak ezagutzea.**
Curriculumak jasotzeko azken eguna: **Urtarrilaren 30a.**



Pil-pilean Euskara Elkarte

Errabal kalea 15, 1. 20590 Soraluze

Informazio gehiago: **943 75 13 04** zenbakian edo **koordinazioa@pil-pilean.com** (Arrate)



Jaso nahi bozu, ikasi emoten

M^a Jesus Arribas eta Margarita Ibargoi borondate handiko andrak dira. Caritasen egoten dira ez daukenari emon eta bihar dabenari laguntzen. Esperientziarik ez jakue falta: lehenenguk 32 urte darioiaz, bigarrenak 25. Eurena lan bolondresa da, alkartiak berak daukan filosofixakin bat.

Noiztik dihardu Caritasek Soraluzen laguntzen?

50 urte baino gehixago bai behintzat. Orduan demaseko biharra zeguan. Gainera, inmigrazinua hasi zan eta jende barri asko heldu zan herrira.

Zuek zela hasi zintan Caritasen bolondres lanian?

Eliza inguruan ibili izan gara beti eta parrokuak hala eskatuta hasi ginan bixok. Zeregin politta da nahiz eta batzuetan amorratu be egitten garan batakin edo bestiakin. Baina baten batekin egin bihar dau lan hau eta!

Ze zerbitzu eskeintzen dozuez?

Lehenengo harrera egitten dotsagu datorren danari. Horren ostian, ba-koitzan datuak jasotzen dittugu eta gizarte zerbitzuetan laguntzarik jaso ezin badabe, erantzuten saiatzen gara. Laguntza jaso baleikie, baina epe luzian bada, orduan be dirua emoten dotsegu bestia aillegau bittartian. Zubi lana egitten dogu. Horrez gain, papeleua egin bihar daben jendiak gure abokatua duan erabili leike.

Ze perfiletako jendiak jotzen dau zuengana?

Generalian bide normaletatik laguntzarik jaso ezin daben jendia, etorkinak, ijittuak eta errentia ordaindu ezin daben bertako gutxi batzuk be bai.

Zela administratzen dozue dirua?

Hilian behin Eibarko asistentiakin batzen gara eta bertan komentatzen dogu zein etorri dan laguntza eske, ze arazokin eta zela lagundu geinkion. Dirua dauken biharren arabera emoten dogu, garraiorako, medizinatarako, errentarako... Jendiak igual esango dau emon baino ez dogula egitten! Baina eskatzen dabenak dirurik ez daukalako eskatzen dau. Ze egingo genduke guk euren lekuan?

Jendiak Caritasekiko ze irudi daukala uste dozue?

Baleike hiriburuetan hobeto ikusitza egotia. Herri txikixetan “prentsa txarragua” daukagu. Uste dabe daneri emoten dotsegula dirua eta askok, kanpotarrerri bakarrik. Bertokuak baletoz berdin-berdin emongo gontseke. Eta ez pentsau hona datozen danak

eskian datozenik. Batzuk epeltasun bila etortzen dira, kontuak kontatzera. Gure misiño inportantiena harrerria da eta askotan, psikologo lanak be egitten dittugu. Asko ikasten da.

Bihar asko dago Soraluzen?

Oin hamar urte, Gipuzkoako etorkin gehixen zeukan herrixa Soraluze zan. Orduan, sekulako mobilizazinua egon zan jende horrerri laguntzeko. Herrittarrak izarak, mantak, plantxak eta beste-

“Oin hamar urte, Gipuzkoako etorkin gehixen zeukan herrixa Soraluze zan”

lako tresnerixia emon zotsen Caritasi. Horri eskerrak, aurrera egin dabe eta gehixenak lanian dabiz. Baina ez dauke bat be erreza: erroldatu bare ez dago errenta-kontraturik eta kontratu bare ez dago erroldatzerik. (erroldatuta egotea beharrezkoa da laguntzak jasotzeko)

Zela ikusten dozue etorkizuna?

Caritasen bihotza bolondresak dira. Kontua da gaztiendako urrin geratzen dala Caritas, Elizia-kin lotzen dabelako edo. Donostian ostera, gazte morduak dihardu laguntzen, horretako asko ikasketaduna da gainera eta ederra da hori. Ezin jakin gurian ze izango dan, ikusiko da! ☞

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK

Caritas ez da behar duenari laguntza ematen dion erakunde bakarra. Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailak ere laguntza ekonomikoak ematen ditu. Horren adierazgarri, azken hiru urteotako datuak.

Soraluzen laguntza ekonomikoa jaso duenak

	2007an	2008an	2009an
Gizarte larrialdiko laguntzak jaso dituztenak	53	70	99
Diru-sarrerak bermatzeko laguntzak jaso dituztenak	38	42	66

ESKATZAILEEN PERFIL BERRIA

2008ra arte diru sarrerak bermatzeko laguntza eskatzen zuen jendea gizarteratzeko arazoak zituena zen edo adina edo balio-urritasunagatik lanpostu bat lor ezin zezakeena. Gaur egun, eskatzaileak krisiaren ondorioz langabezian geratu direnak eta zailtasun ekonomikoak dituztenak dira. Gizarteratzeko laguntza berezirik behar ez duen jendea da. Onuradunen artean, gero eta jende gazteagoa dago eta etorkin kopuru handiagoa, lana izan eta galdu egin dutelako edo ez dutelako lanik lortu.

*Laguntzak jasotzeko zenbait baldintza bete behar dira. Informazio gehiago nahi duenak jo dezala Gizarte Zerbitzuetara, astelehene-tik barixakura goizeko 08:00etatik 14:00etara edo 943 75 00 56 telefonoan.

“Batzuk epeltasun bila etortzen dira, kontuak kontatzera”



“Gizarte zerbitzuen eta biharra dakan arteko zubilana egitten dogu”



Ibargoen errezeta medikuan sinatzen.

BI ERATAKO LAGUNTZAK DAUDE:

Diru sarrerak bermatzeko laguntza

Oinarrizko beharrei aurre egin ezin dien pertsoneri zuzendutako laguntza da.

Gizarte larrialdiko laguntzak

Errenta, ura, argia eta zaborra, oinarrizko beharrak eta altzariak eta etxebizitzaren ekipamendua ordaintzeko laguntzak dira.



ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Finantza krisia luze jotzen ari da. Urte berriarekin batera, agerian geratzen ari da behar ekonomikoa dutenen perfila aldatzen ari dela. Laguntzek ere gora egin al dute?

Nahikoa laguntza dago behar duenarentzat?

YADIRA TIGRERO
Garbitzailia




Ezetz esango neuke. Nik lau seme alaba dittut baina ez dot laguntzarik jaso familia ugariagaittik. Lana badaguan arren iger-tzen da biharra. Handik eta hamendik deskontuak lortzen saiatzen gara.

ESTHER IÑURRIETA
Zaintzailia




Nik uste ezetz. Nere senarrak dependentzia dauka eta biharrak badaukaz. Hala eta be, Diputaziñokuak etorri ziranian oso baju baloratu zeben. Jende asko dago laguntzan faltan eta egoeria ez da erreza.

JUANMA DONOSO
Almazeneko bihargina



Ni neu lan erregulaziñuan nago eta prezixueri gehixago begiratzen dotset. Laguntza ekonomiko gehixago egon bihar lirakela pentsatzen dot. Europako beste herrialdien aldian atzetik gabizela irizten jata.

JOSE LUIS LARREATEGI
Zentro mekanizatuko bihargina



Ez dakitt. Ezer ez daukanak nunbaitetik jan bihar dau baina ez dakitt zein dan soluziñua. Parua be ez da betirako eta gauzia geizki dago. Gero, enpresarixuak be badakixe zela etara etekina egoera bakoitzari.

GAZTELUPE
taberna
tel: 943 75 20 81

TXURRUKA
JATETXEA
www.txurruka.com
943 75 15 81

TXOKO
KAFETEGIA

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!
Kalebarren 22, beheka, Soraluze. T. 943 75 17

MARI MAR
HARATEGIA

Gurean
Euskal Herriko
produktuak!
Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze

Gabonetako ekitaldiak argazkitan

Aratosteak prestatzeko bilera

Soraluzeko Udalak jakinarazi berri du aurtengo aratosteak prestatzeko bilera urtarrilaren 25ean egingo dela, astelehena, arratsaldeko 19:00etan udaletzeko saio aretoan. Bileraren helburua, aurtengo egitaraua prestatuko duen lan-taldea sortzea izango da.

Alzheimer gaixoen erretratoak Oreka Art aretoan

Jean Claude artista frantziarraren "Patologías: N° 2, El arco senil" erakusketa ekarri du Alberto Ramirez aretoko arduradunak. Erakusketa alzheimerra pairatzen duten gaixoen erretratuez osatuta dago, euren itxura fisikoa margolan bidez jasota. Jean Claude-ren erakusketa urtarrilaren 8tik 17ra bitartean egongo da Soraluzen.

Asteburu betea Gaztetxean

Gaur gaueko 22:00etatik aurrera Norman eta PAM musika taldeak arituko dira. Bihar berri, ordu berean Deskontrol eta Orreaga 778 taldeak beteko dute Gaztetxea eta domekan afari begetarianoa eta "Princesas" filmaren emanadia izango dira.

Kulturaren mahaiaik elkartearen erregistro bat sortzeko beharra ikusi du

Kulturaren mahaia atzo bildu zen bigarren bez. Besteak beste, herriko kultur elkartearen erregistro bat sortu nahi dute, elkartearen informazio eguneratua izateko. Elkarteekin biltzeko beharra ere aztertu zuten eta lokalen beharren azterketa bat egiteko premia. Bestalde, herriko kultur eskaintza areagotzeko, ekitaldien egutegi bateratu bat sortzeko aukera ikusi zuten.



Olentzeroren zain, kantuan!



On plantak Olentzeroren altzoan...



Mari Domingiren oparia, ze goxoa!



Abesbatzaren kontzertua Mesedeetako Amaren Egoitzan



Traktore gainean, Ekialdeko Erregeei bidea zabaltzen



Meltxor erregea zaldi gainean Soraluzera sartzen!

ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera


HNOS. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)


Frontenis Txapelketan Bergarako bikotea irabazle

A benduaren 27 eta 28an 16 urtetik gorakoen Binakako I. Frontenis Txapelketa jokatu zen kiroldegian. Parte hartze handia izan zen, 18 bikote lehiatu ziren txapelketan. Irabazleak Patxi Vallejo eta Aitor Gomez, Bergarako bikotea izan ziren eta txapela eta

garaikurra eskuratu zuten. Bigarren finalistak, Jokin Martinez eta Gorka Varela izan ziren eta hauek ere garaikurra jaso zuten. Antolatzaileek adierazi dutenez, giro oso ona izan zen txapelketan zehar eta hurrengo urtean errepikatzea espero dute. 

Laskurain VIII. Binakako Txapelketan

Lehen Mailako Binakako Txapelketa Errege Egunean hasi zen, Eibarko Astelena pilotalekuan. Txapelketako sistema honako hau izango da: bi bueltako finalaurdenetako liga bat egingo da. Sailkatzen diren lau onenak finalaurreko ligaxkan arituko dira finalean sartzeko. Txapelketako lehen partidan, Berasaluze

VIII eta Beginok 22-14 irabazi zuten Laskurain eta Gonzalez bikotearen aurka. Sorluzetarraren hurrengo lehia, bihar urtarrilak 16 izango da, Iruñeko Labrit pilotalekuan. Honetan, Laskurain-Gonzalez bikoteak indarrak neurtuko dituzte Bengoetxea VI. eta Beloki bikotearen kontra. 

EMAITZAK

FUTBOLA

Lazkao – Sora (Erreg.) 2-0
Sora (Jub.) – Urki 1-3
Lagun Onak C.D. – Sora (Kad.).. 7-0

PELOTA

Berasaluze VIII – Begino 22
Gonzalez – Laskurain 14

AGENDA

FUTBOLA

Urtarrilak 16, zapatua, 16:00etan Estalan
Sora (Erreg.) – Mutriku

Otsailak 14, domeka, 12:00etan Estalan
Sora (Erreg.) – Urola K.E.

Urtarrilak 16, zapatua, 11:00etan Estalan
Sora (Jub.) – Bergara K.E.

Urtarrilak 17, domeka, 17:45ean Ipintzan
Bergara K.E. – Sora (Kad.)

PELOTA

Eskuz Binakako Txapelketa Iruñean urtarrilak 16an, Labrit pilotalekuan:
Gonzalez – Laskurain
Bengoetxea VI – Beloki

Gaztetxoentzako pilota partiduak

Urtarrilaren 5ean pilota partiduak jokatu ziren kiroldegian, 5-6 urte bitarteko umeek ligila bat jokatu zuten, 7-12 urte bitarteko arteko hiru partidu eta nagusiak bikoteka lehiatu zuten. Ondoren, otordua egon zen pilotari gazteentzat.



GILA TABERNA
GOIZKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



MENDIZABAL
okindegia
Kalebarren 10
T. 943 75 20 91
Baltegieta 6
T. 943 75 13 99
SORALUZE



MARE
ILEAPAINDEGIA
**ESTETIKA
SOLARIUM**
Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE



Merkatu Plaza
20590 Sorluze t. 943 75 24 40
egunerako arraina eta konjelatuak
Juan Mari arraindegia





ZORION AGURRAK



Ion Mendizabal
Urtarrilaren 11an 29 urte!
Zorionak Juanito!!
Aitatxo, amatxo eta
gaztaina saltzailearen partez!



Hodei Valdivieso Argarate
Urtarrilaren 9an 6 urte!
Zorionak eta patxo handi bat!
Jarraitu orain arte bezain alaia izaten.



Nerea Atxotegi
Urtarrilaren 18an 11 urte!
Zorionak potxola!!
Ondo-ondo pasatu zure
egunean! Muxu handi bat
etxekoen partez!



Iker Arizaga Mahortua
Urtarrilaren 19an urtebete!!
Zorionak pitxintxo eta
orain arte moduan jarraitu!
Muxu asko etxekoen partez!



Nora Ohuardi Aldazabal
Abenduan 12xan jaixua Ongi
etorri maiztia!!!



Olatz Alberdi
Urtarrilaren 20an 7 urte!
Zorionak prexioxa eta
muxu handi bat
etxekoen partez!

hildakoak

FELISA BALLESTEROS FIDALGO
JUAN DIAZ DIAZ
MANUEL GONZALEZ GONZALEZ



jaiotakoak

NORA OHUARDI ALDAZABAL



LEHTAKETA

- ▶ **Zein ageri da argazki honetan?**



- ▶ **Saria:**
Pirritx, Porrotx eta Marimotx-en "Ane Pirata" liburua + Pirritx eta Porrotx-en Familien karta joko.

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- ▶ **Irabazlea:**
Loli Nieves
- ▶ **Felipe Romero**
Correos-eko langilia da pasa dan aleko argazkixan agertzen dan soraluzetarra.



ARGAZKI ZAHARRA



SORALUZeko GAZTE TALDIA SOR INAZIAKIN

Argazki hau 1978. urtekua da, oin dala 32 urte etaratakua. Soraluzetar neska-mutil kuadrila honek Soraluzeko Merzedarietako eskolan ikasten zeban. Eskoliak 100 urte bete zittuan herrixan, desagertu zan arte.

ARGAZKIXAN:

Goixan, ezkerretik eskumara:

Margarita Ibargoiien, Mikel Ariznabarreta, Sor Inazia, Sabin Pérez de Labeaga, Maite Sesma, Ana Jesus Garmendia eta Maria Jose Galarraga.

Behian:

Carlos Uzin, Jabi Ariznabarreta, Miguel Anjel Tornos (*Fede*) † eta Simon Etxeberria. ☞



Loli Nieves García

Santa Ana, 13 • SORALUZE
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659
E-maila: mdnievas@mgs.es
www.mgs.es





SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

1- Etxebizitza

Salgai:

- Soraluzen, Errabal kalean etxea salgai. Hiru logela, bainugela, jangela, eta sukaldea. Berrituta dago eta bizitzera sartzeko moduan. 80 metro karratu.

- Gabolatz kalean etxea salgai. Bi logela ditu, sukaldea, jangela eta bainu gela. Oso argitsua eta bizitzeko moduan dago. Prezio oso ederra. 70 metro karratu

- Baltegieta kalean etxea salgai. Hiru logela ditu, jangela, sukaldea eta bainugela. Oso argitsua da eta bizitzera sartzeko moduan. Oso prezio interesgarria du. Deitu lasai eta galdetu.

- Zeleta auzoan etxea salgai. Bi logela, sukaldea eta bainugela ditu etxe honek. Gasdun berogailua de eta etxea berrituta dago. Bizitzera sartzeko prest dago. Eskaintza ona.

- Baltegieta 17.ean etxea salgai. Etxe honek hiru logela, sukaldea, bainugela eta despentsa ditu. Irogailu berria dauka eta oso argitsua da. Oso prezio onean dago. Deitu eta galdetu.

- Serafin Atxotegi kalean etxea salgai. Etxe oso polita, hiru logela ditu, bainugela bat, sukaldea eta jangela. Etxe guztia berrituta dago eta altzariekin. Bizitzeko prest.

- Kalonje kaleko 4.ean etxea salgai. Etxe hau hiru logela, jangela, bainugela bat eta sukalde batek osatzen dute. Balkoi eder bat du eta oso argitsua da. Berehala bizitzera sartzeko aukera dago. Interesatuak deitu 649 759078 mugikorrera (Ainhoa).

- Lau eta sei urte bitarteko aurrentzat arropa salgai. Berokiak, galtzak, oinetakoak eta beste hainbeste. Prenda guztiak euro bat eta hiru euro artean. Interesatuak, 649 318 385 telefonora deitu.

Atal honetako iragarkiak doan dira.

Iragarki guztiak,

soraluze.iragarkilaburrak.com

helbidean daude eta baita,

www.plaentxia.com helbidean.

Kontaktuak bertan.

Iragarkiak jartzeko:

943 75 13 04 telefonoan

www.plaentxia.com

soraluze.iragarkilaburrak.com

2- Lana:

- Larunbat goizetan garbiketa lanak zein pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. 666 815 008 - 679 878 676

- Modistak era guztietako konponketak egiten ditu Gabolatz kalea, 29, 1 Telefonoa, 666 815 008/ 679 878 676

- Ile-apaintzaile laguntzailea behar da. Harremanetarako: 943 75 23 85 (Ezozi).

3- Garajeak:

- Garajea errentan. Interesatuak deitu 669 145 893 telefonora.

- Garajea alokatzen da, Errekalde 24-26an. Interesatuak 653 712 860 telefonora deitu (Juan).

4- Denetarik:

Salgai:

- Bizikleta saltzen dut. Duela bost hilabete "Puesta a punto" eginda duena. Prezio oso interesgarria. 943 75 14 91.

Hartu:

- Ordenagailuko kañoia erosiko nuke. Interesatuak: 628 233 464

- 6.0, 6.1 luzerako surfeko ohola erosiko nuke. Olatuan maniobrak egiteko moduko ohola eta egoera onean dagoena. Telf: 655 721 190 eta emaila: tatxus@gmail.com. (Iker)

- Hirian ibiltzeko moduko bizikleta merkea erosiko nuke. Ez du inporta zaharra izateak. 100 euro ordainduko nituzke gehienez. Telf: 655 721 190 eta emaila: tatxus@gmail.com (Iker)

- Guatemalara bidaltzeko ordenagailu eramangarri bat behar dut. Eskola xume bateko irakasle batentzat. Internetera konektatu daitekeena. Egoera onean dagoena.



MAKINA BEREZIAK
LERRO AUTOMATIKOAK
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA

SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE



Fresatzeko Teknologia



Mahai Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua
Mahai Finkoarekin



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



SORALUCE, S.Coop.
Osintxu Auzoa
E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 76 90 76
Fax. +34 943 76 51 28
E-mail: soraluce@soraluce.com
www.soraluce.com

